# Aprende a tocar las melodias del Alarde de Hondarribia

*con Txingudi*



# Ikas ezazu Hondarribiako Alardearen doinuak jotzen

*Txingudirekin*

txingudi
PARQUE COMERCIAL IRUN

# Esquema posición Txibilito

Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ∅ Zulo erdi itxita



ALARDE FUNDAZIOA

Consulta toda la info del Alarde en:
www.hondarribikoalardea.com

## El Voto a la Virgen de Guadalupe

El1º de julio de 1638 Hondarribia fue cercada por las tropas del Rey Luis XIII de Francia al mando del Príncipe de Condé. En los primeros días del asedio los hondarribiarras reunidos en la Parroquia juraron a la Virgen de Guadalupe que si por su intercesión lograban liberarse se lo agradecerían anualmente yendo en procesión a su Santuario situado en el promontorio Olearso. La Ciudad resistió durante 69 días levantándose triunfalmente el sitio el 7 de septiembre de 1638. Consecuentes con su promesa los hondarribiarras vienen cumpliendo el Voto año tras año con una Procesión Cívico-Religiosa, escoltada por Paisanos Armados, conocida popularmente como el Alarde.

## Guadalupeko Ama Birjinari Botoa

1638ko uztailaren 1ean, Frantziako Errege Luis XII.aren Tropek, Konde Printzearen agindupean hesitu egin zuten Hondarribia. Setioaren lehen egunetan, hondarribiarrek Parrokian bildurik, Guadalupeko Ama Birjinari zin egin zioten, jazarpen horretatik askatzen bazituen, urtero eskerrak emango zizkiotela Olearso mendiko bere Santutegira prozesioan joanez. Hiriak 69 egunez jasan zuen setioa, eta 1638ko irailaren 7an garaile altxatu zen. Horrenbestez, hondarribiarrek urtero betetzen dute beren botoa Alardea deitzen dioten prozesio Zibiko-Erlijiosoa eginez, zeina Herritar Armadunez babestuta joaten baita.






Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ∅ Zulo erdi itxita







Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ⌀ Zulo erdi itxita



## Al amanecer

Desde antes del amanecer la Ciudad se prepara para el gran día. Cuatro componentes de la Banda de Música “Ciudad de Hondarribia” interpretarán la ALBORADA titulada “ALBA” a las 5 de la mañana, primero en kale Nagusia y después en diferentes puntos de la Ciudad. A las seis en punto llegará el bullicioso despertar con la Banda de Música “Ciudad de Hondarribia” que interpretará en kale Nagusia la DIANA “CREPÚSCULO”, y a continuación la Tamborrada, en Arma plaza, interpretará su DIANA. Ambas formaciones continuarán haciéndolo por toda la Ciudad.

## Egunsentian

Eguna argitu baino lehen, egun handirako prest dago Hiria. “Hondarribiko Hiria” Musika Bandako lau kidek “ALBA” izeneko ALBORADA Joko dute goizeko 5etan, lehendabizi Kale Nagusian, eta ondoren, Hiriko beste zenbait lekutan. Seiak puntu- puntuan esnatze zaratatsua. “Hondarribiko Hiria” Musika Bandak “CREPUSCULO” izeneko DIANA joko du Kale Nagusian, eta jarraian Danborradak “DIANA”. Bi talde hauek Hirian barrena jarraituko dute jotzen.

# Ikurriña




Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ⌀ Zulo erdi itxita

## Incorporación de la Bandera

Una vez llegados a Arma plaza, la Bandera, que se encuentra depositada en la Parroquia desde el 15 de agosto, se incorporará al Batallón con una solemne ceremonia. Tras el toque de ARRANCADA del Cornetín de Órdenes, la Tamborrada, tocando IKURRIÑA, la Compañía Arkoll, y todos los Capitanes y Jefes de Unidad, se dirigirán hacia la Parroquia. Cuando la Compañía Arkoll haya llegado al pórtico, cesará la música, los Capitanes y Jefes de Unidad harán un pasillo de honor, y el Capitán de la Compañía Arkoll ordenará presentar armas. A continuación el Cornetín de Órdenes tocará ENTRADA DE LA BANDERA y, en medio de un solemne silencio, la Bandera se incorporará a la Compañía en manos de su Teniente Abanderado. Finalmente, y tras el toque de ARRANCADA del Cornetín de Órdenes, la comitiva volverá a Arma plaza a los sones de IKURRIÑA.



## Bandera batailoian sartzea

Arma Plazara iritsitakoan, abuztuaren 15etik Parrokian dagoen Bandera gehituko zaio Batailoiari, zeremonia eder batean. Aginduen Kornetinak “ARRANKADA” jo ondoren, eta Danborradak “IKURRIÑA” jotzen duen bitartean, Arkoll Konpainia eta Kapitain eta Unitate-buru guztiak Parrokiarantz abiatuko dira. Arkoll Konpainia Eliz-atarira iristean, musika isildu egingo da, Kapitainek eta Unitateburuek ohorezko pasabidea egingo dute, eta Arkoll Konpainiako Kapitainak armak aurkezteko agindua emango du. Jarraian, Aginduen Kornetinak “BANDERA SARTZEA” joko du, eta isiltasun izugarri baten erdian, Bandera Konpainian sartuko da Teniente Banderadunaren eskuetan. Azkenik, eta Aginduen Kornetinak “ARRANKADA” jotzen duenean, berriro Arma Plazara itzuliko dira “IKURRIÑA”ren doinuan.




Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ⌀ Zulo erdi itxita



## Arma plaza

Cuando la Compañía Arkoll haga su entrada en Arma plaza llevando la Bandera, el Burgomaestre ordenará al Batallón presentar armas y, tras el toque ATENCIÓN FIRMES del Cornetín de Órdenes, la Tamborrada y la Banda de Música interpretarán TITIBILITI. Una vez incorporada la Bandera, el Burgomaestre ordenará al Cornetín de Órdenes que toque LLAMADA A CAPITANES, y les dará las oportunas instrucciones. A continuación ordenará descargas generales de fusilería y artillería, interpretando la Tamborrada y la Banda de Música, en cada una de ellas, AZERI DANTZA.

## Arma plaza

Arkoll Konpainia Banderarekin batera Arma Plazan sartzen denean, Burgomaisuak armak aurkezteko agindua emango dio Batailoiari, eta Aginduen Kornetinak “ATENTZIO TENTE” jo ondoren, Danborrada eta Musika Banda “TITIBILITI” jotzen hasiko dira. Bandera sartutakoan “KAPITAINEI DEIA” jotzeko aginduko dio Burgomaisuak Aginduen Kornetinari eta dagozkion instrukzioak emango dizkio. Jarraian, fusileriaren eta artilleriaren deskarga orokorrak egiteko agindua emango du eta horietako bakoitzean Danborradak eta Musika Bandak “AZERI DANTZA “ joko du.

# 8 Septiembre (1. Ibiltza)




Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ⌀ Zulo erdi itxita

## Alarde de Arma plaza a Saindua

Una vez realizadas las descargas generales, el Burgomaestre ordenará al Cornetín de Órdenes que toque ARRANCADA, y a los sones de 8 DE SEPTIEMBRE interpretado por la Banda de Música, la Procesión, el Alarde, iniciará su marcha hacia el Santuario de la Virgen de Guadalupe, bajo el repique general de campanas. Al llegar frente a la Parroquia las Compañías de Infantería realizarán una descarga, y una vez que el Batallón haya pasado frente a la Parroquia se incorporarán a la Procesión el Cabildo Eclesiástico, y el Cabildo Civil, seguidos del pueblo. Durante el recorrido la Tamborrada alternará con la Banda de Música interpretando la marcha 8 SETIEMBRE, y una vez llegados a Saindua las Compañías de Infantería realizarán una descarga. A su llegada, la Batería de Artillería formará un pasillo de honor en el lado derecho de la calzada, de la misma forma que lo habrán hecho el Burgomaestre, sus Ayudantes, y el Comandante del Batallón en el lado izquierdo, presentando armas a la llegada del Cabildo Eclesiástico, y por dicho pasillo accederán los Cabildos Eclesiástico y Civil a la ermita de Saindua.



## Alarde arma plazatik Sainduara

Deskarga orokorrak egin ondoren “ARRANKADA” jotzeko aginduko dio Burgomaisuak Aginduen Kornetinari, eta Musika Banda “8 DE SEPTIEMBRE” joaz, eta ezkila soinuen artean Prozesio, Alardea, Guadalupeko Ama Birjinaren Santutegirantz abiatuko da. Parrokiaren aurrera iristean Infanteriako Konpainiek beren deskarga egingo dute, eta Batailoi osoa Parrokiaren aurrean igarotakoan, Eliz-Agintariak eta Agintari Zibilak sartuko dira Prozesioan, herritarrak atzetik dituztela. Ibilbidean zehar Danborradak eta Musika Bandak txandaka “8 SETIEMBRE” izeneko martxa joko dute, eta Sainduara iritsitakoan Infanteriako Konpainiek deskarga egingo dute. Bertara ailegatzean, Artileriako Bateriak ohorezko pasabidea egingo du galtzadaren eskuin aldean, Burgomaisuak eta bere Laguntza leek eta Batailoiko Komandanteak ezkerreko aldean egin duten moduan. Eliz-Agintariak iristean armak aurkeztuko dituzte, eta Eliz-Agintariak nahiz Agintari Zibilak pasabide horretatik igaroko dira Saindua ermitarako bidean.

# Ttitteiro (2. Ibiltza)




Agujero abierto ○ Zulo irekita
Agujero cerrado ● Zulo itxita
Agujero medio cerrado ∅ Zulo erdi itxita

## Guadalupe

Una vez llegados a Guadalupe y tras la LLAMADA A MISA por las campanas del Santuario, el Cabo y cinco componentes de la Escuadra de Hatxeros, los Capitanes y Jefes de Unidad con sus Cantineras, el Comandante del Batallón, el Burgomaestre, la Bandera, y el Cabildo Civil, accederán al Santuario para asistir a la Misa por un pasillo de honor formado por todas las Banderas de las Unidades y Compañías, que entrarán en último lugar. En la puerta serán recibidos por el Capellán del Santuario, y una vez en el interior los Hatxeros formarán en el Presbiterio y las Banderas a los lados. Durante la Consagración, los Hatxeros y las Banderas rendirán honores, el Cornetín de Órdenes, en el exterior, tocará el TOQUE DE SILENCIO, y la Batería de Artillería, formada en la arboleda frente al Santuario, realizará descargas. Finalizada la Misa con el canto de la Salve de Guadalupe, el Comandante del Batallón junto con el Cornetín de Órdenes reunirá la tropa que formará en la campa de la cruz. Una vez incorporado el Burgomaestre, que vendrá acompañado de sus Ayudantes, ordenará LLAMADA A CAPITANES dándoles las indicaciones oportunas. A continuación ordenará descargas generales de fusilería y artillería, interpretando la Tamborrada, en cada una de ellas, AZERI DANTZA, y dará los “goras” de rigor. De esta forma, una vez más, queda renovado el Voto hecho en 1638. A continuación, el Cornetín de Órdenes tocará ARRANCADA, y se iniciará el regreso del Alarde a los sones de TTITTEIRO interpretado por la Tamborrada. Al llegar frente al Santuario las Compañías de Infantería realizarán una descarga.



## Guadalupe

Guadalupera iritsitakoan eta Santutegiko kanpaiek “MEZETARAKO DEIA” egin ondoren, Hatxeroen Kaboa eta bost kide, Kapitainak eta Unitate-buruak beren Kantinerekin, Batailoiko Komandantea, Burgomaisua, Bandera eta Agintari Zibilak Santutegira sartuko dira meza entzutera, Unitate eta Konpainia guztietako Banderez egindako ohorezko pasabidearen erditik, eta azkenik, aipatutako banderak sartuko dira. Atean Santutegiko Kapilauak harrera egingo die eta barruan Hatxeroek Presbiterioan eta Banderak bi aldeetara jarriko dira. Sagarako garaian Hatxeroek eta Banderek ohorea agertuko dute, Eliz atarian Aginduen Kornetinak “IXO” joko du eta Santutegiaren alboko arboladian deskargak egingo ditu Artileriako Bateriak. Meza amaitzean, Guadalupeko Salbea abestuz, Batailoiko Komandanteak, Aginduen Kornetinarekin batera tropa osoa bilduko du Gurutzearen zelaian. Burgomaisua bere Laguntzaileekin iristen denean, “KAPITAINEI DEIA” deia egin, eta dagozkien aginduak emango dizkie. Jarraian, fusileriako eta artileriako deskarga orokorrak egiteko aginduko die, Danborradak horietako bakoitzean “AZERI DANTZA” jotzen duen bitartean, eta ohiko “gorak“ egingo ditu. Horrenbestez, 1638. urtean egindako botoa berritutzat joko da. Jarraian, Aginduen Kornetinak “ARRANKADA” joko du, eta Danborradak “TTITTEIRO” joaz Alardearen itzulera hasiko da. Santutegiaren aurrera iristen direnean Infanteriako Konpainiek deskarga egingo dute.







## Regreso del Alarde

Ya por la tarde, el Alarde se formará junto a la ermita de Saindua al toque de LLAMADA GENERAL A FORMAR realizado por el Cornetín de Órdenes, y al toque de ARRANCADA iniciará la marcha hacia Arma plaza, recorriendo el barrio de La Marina a los sones de 8 SETIEMBRE, interpretado por la Tamborrada, que alternará con la Banda de Música que interpretará 8 DE SEPTIEMBRE y, al subir kale Nagusia y bajo el volteo general de las campanas, CAMPAMENTO ALARDE. Una vez en Arma plaza, el Burgomaestre ordenará LLAMADA A CAPITANES para recibir novedades e impartir las instrucciones oportunas. A continuación y con la Bandera expuesta en la ventana central del Castillo de Carlos V, ordenará descargas generales de fusilería y artillería, interpretando la Tamborrada y la Banda de Música, en cada un de ellas, AZERI DANTZA.

## Alardearen itzulera

Arratsaldean Sainduako ermitaren ondoan formatuko da Alardea, Aginduen Kornetinaren “DEI OROKORRA” deiari erantzunez, eta “ARRANKADA” doinuarekin abiatuko da Arma Plazarantz, Portu Auzoan barrena, Danborradak eta Musika Bandak txandaka IRAILAK 8 joko dute, eta Kale Nagusia igotzerakoan ezkila soinuekin batera “CAMPAMENTO ALARDE”. Arma plazara iritsitakoan “KAPITAINEI DEIA” deia egingo die Burgomaisuak, gorabeherak entzuteko eta dagozkion aginduak emateko. Jarraian, Karlos V. Gazteluko erdiko leihoan Bandera jarrita, fusileriako eta artileriako deskarga orokorrak egiteko aginduko du, horietako bakoitzean Danborradak eta Musika Bandak “AZERI DANTZA” joko dutelarik.

## Entrega de la Bandera y Rompan filas

Una vez realizadas las descargas generales ordenará proceder a la entrega de la Bandera, ceremonia que comienza el toque de cornetín ARRANCADA, y la Escuadra de Hatxeros, la Tamborrada, interpretando IKURRIÑA, la Compañía Arkoll, el Burgomaestre, sus Ayudantes, y el Comandante del Batallón, se dirigirán a kale Nagusia. Cuando se exponga la Bandera en el balcón, el Cornetín de Órdenes tocará ATENCIÓN hasta conseguir un silencio absoluto, y el Burgomaestre dará los “goras” de ordenanza y ordenará “Batallón, rompan filas”, momento en que se dirigirá a Arma plaza junto con sus Ayudantes y el Comandante del Batallón, mientras la Tamborrada y la Banda de Música interpretan FAJINA, donde repetirá las arengas y la orden de romper filas al resto del Batallón. Por último, el resto de las Unidades y Compañías descenderán kale Nagusia, mientras Tamborrada y la Banda de Música interpretan FAJINA, marchando a los lugares que tienen por costumbre, finalizando así la jornada.

## Bandera entrega eta Lerroak haustea

Deskarga orokorrak egindakoan, Bandera Entregarako agindua emango da kornetinaren “ARRANKADA”rekin, eta Hatxeroen Eskuadra, Danborrada “IKURRIÑA” joaz, Arkoll Konpainia, Burgomaisua bere Laguntzaileekin eta Batailoiko Komandantea Kale Nagusira abiatuko dira. Bandera balkoian jartzean, Aginduen Kornetinak “ATENTZIO” joko du, denak erabat isildu arte, eta Burgomaisuak “gorak“ oihukatuko ditu, jarraian, “Batailoia hautsi lerroak” aginduko du. Orduan, bere Laguntzaileekin eta Batailoiko Komandantearekin Arma Plazara joango da, Danborradak eta Musika Bandak “FAJINA” jotzen duten bitartean. Hor, aurreko oihuak errepikatuko ditu eta gainontzekoei ere agindu berdinak emango dizkie. Azkenik, Unitate eta Konpainia guztiak Kale Nagusian behera jaitsiko dira, Danborradak eta Musika Bandak “FAJINA” jotzen duten bitartean, eta bakoitza bere ohiko lekuetara joango da eguna amaitzeko.

txingudi
PARQUE COMERCIAL IRUN

parquecomercialtxingudi.com
txingudimerkatalgunea.com

ParqueComercialTxingudi